

## BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Garrantzitsua da gure enpresak bezeroarekin zein harreman mota izango duen definitzea. Gure enpresak bezeroekin edukiko den harremana ez da pertsonala izango; telefonoaren eta sortutako webgunearen bitartez kontaktatuko gara beraiekin. Hauen bitartez, izena emateko aukera izango duten bezeroek, eta hobekuntzaren bat edukiz gero, iruzkinak jartzeko aukera izango dute, guk gure parkea hobetzeko. Horretaz gain, bezeroek gure existentziaren berri izateko, triptikoak egingo ditugu.

Webgunearen bitartez, bezeroak gure enpresara harpidetzeko aukera izango dute. Honetarako beraien inguruko gutxieneko informazioa bakarrik jarri beharko dute, eta hau egin ostean, gurekin harremanetan jarraitzeko aukera izango dute. Gainera, gure enpresak ideia berriren bat izanez gero, harpidetuta dauden bezeroei jakinaraziko genieke, informazio guztia beraiekin partekatuz.

Gure parke ibiltaria EAE guztian zehar ibiliko da, kontuan hartuta leku batzuetan jada badagoela abenturazko parkeren bat. Guk eremu horietara gure parkea eramango bagenu, beste parkeekin konpetentzia egin beharko genuke, horregatik onuragarria izango litzateke beraientzako bai guretzako aliantza akordio bat egitea; adibidez, guk beraiek eskaintzen ez duten zerbitzu bat beraien parkean gehitzea. Hauek dira herri edo eremu horien adibide batzuk:

- Otxandio (Bizkaia): *Hontzaextrem* parkea dagoelako.
- Gorniz (Bizkaia): *Troka* abentura parkea dagoelako.
- Albatzisketa (Gipuzkoa): *Txindokiko itzala* parkea dagoelako.
  - Kontuan izanda Albatzisketan abenturazko parkea dagoela, ezin izango genuke gurea bertara eraman, bezeroak gutxituko zirelako. Horregatik beraiekin akordio batera iritsi gintezke; beraiek nola tirolinaren zerbitzua ez duten eskaintzen, beraiekin hitz eginez gero, guk jarri ahalko genuke zerbitzu hori beraien parke barruan. Bertatik lortutako etekinen zati bat beraiendako izango litzateke; hasieran ideia batekin joango ginanteke (%60 guretzako eta %40a beraiendako). Ondoren adostasun batera iritsi beharko ginanteke.
- Erandio (Bizkaia): *Forestal Park Bilbao* parkea dagoelako.